



BASURI

Udala • Ayuntamiento



Bandera
Berdea

KULTURA-POLITIKA ETA EUSKARA ARLOA ÁREA DE POLÍTICA CULTURAL Y EUSKERA

0967/2017 DEKRETUA

DECRETO Nº 0967 / 2017

Data: 2017/03/16

Fecha: 16 /03/2017

Kultura-politika eta Euskara arloko diru-laguntzak emateko Oinarriak onartu ditu 2017ko otsailaren 27ko 0709/2017 Dekretuak —eta 2017ko martxoaren 14ko 51 zenbakidun BAO on argitaratu dira—.

Horren harira, Alkatetzak honako hau XEDATU DU, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21. artikulua eta indarreko gainerako legeriak emandako eskumenak baliatuta:

LEHENENGOA: «Kirola: kirol-jarduera egonkorak eta/edo lehiaketak egitea» diru-laguntzarako gastuak baimentzea, jarraian adierazi bezalaxe:

Habiéndose aprobado las Bases que regulan la concesión de subvenciones en materia de Política Cultural y Euskera, por Decreto de la Alcaldía 0709/2017 el 27 de febrero de 2017, y publicado en el BOB nº 51 el 14 de marzo de 2017.

Desde esta Alcaldía y en virtud de las competencias que le otorga el artículo 21 de la Ley 7/85 Reguladora de las Bases de Régimen Local y demás legislación vigente se DISPONE lo siguiente:

PRIMERO: autorizar el gasto para la subvención «Deporte: Realización de Actividades de Carácter Estable y/o en Competiciones», conforme al siguiente detalle:

Partidaren deskribapena Descripción de la Partida	Partida	Erreferentzia	Eragiketa Zk. Nº Operación	Zenbatekoa Importe
Transf. arr. IAGEei. KIROLAK. T. corr. a ISFL. DEPORTES.	72 3411 48199	22017000433	220170000338	270.000,00 €

BIGARRENA: «Kirola: kirol-jarduera egonkorak eta/edo lehiaketak egitea» diru-laguntzaren 2017ko deialdia onestea, Kirolak I Eranskinean xedatutakoaren arabera.


SEGUNDO: aprobar la convocatoria de la Subvención de Deporte para la Realización de Actividades de Carácter Estable y / en Competiciones de 2017, de acuerdo a lo especificado en el Anexo Deportes I adjunto.

HIRUGARRENA: xedatzea hilabeteko epea egongo dela eskabideak aurkezteko, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

TERCERO: establecer que el plazo para la presentación de solicitudes será de un mes desde el día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia.

LAUGARRENA: 2018ko urtarrilaren 31ko data ezartzea zuriak egiteko epemuga gisa.

CUARTO: establecer como fecha límite para la justificación el 31 de enero de 2018.



BOSGARRENA: Kultura-politika eta Euskara Arloko 2017ko diru-laguntzen deialdia argitaratu dadila, bai Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalaren bitartez, bai lurralde historikoan zabalkunde handiena duten egunkarietako batean, baita Basauriko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean ere.

QUINTO: ordenar la publicación de la convocatoria para la concesión de las subvenciones del Área de Política Cultural y Euskera de 2017, en el Boletín Oficial de Bizkaia a través de la Base de Datos Nacional de Subvenciones, y en uno de los diarios de mayor difusión del Territorio Histórico, así como en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Basauri y en la web municipal.

Basauri, 2017ko martxoaren 16a

Basauri, 16 de marzo de 2017.

ALKATEA / EL ALCALDE



Sin / Fdo: Andoni Busquet Elorrieta



BASAURI

Udala · Ayuntamiento



Bandera
Berdea

ERANSKINA: KIROLAK I

Kultura-politika eta Euskara ARLOA

BALORAZIO BATZORDEAREN OSAERA: Gazteria, Jai eta Kiroletako Informazio Batzordea.

Diru-laguntza lerroa	KIROL JARDUERAK
Diruz laguntzeko kontzeptua	JARDUERA EGONKORRAK ETA/EDO LEHIAKETAK EGITEA
Aurrekontu partida	72.3411.48199
Partidaren deskribapena	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK IAGE-EI, KIROLAK
Zenbatekoa	270.000,00 €
Diru-laguntza emateko erregimena	NORGEHIAGOKA

1. HELBURUA:

Kirol elkarte eta klubek urtero antolatzen dituzten kirol jarduera egonkorak edota txapelketak sustatzea, eta bultzada ematea Basauriko Udaleko Kirol Atalak antolatutako kirol jardueren osagarriak antolatzen dituzten elkarteei.

Kirol elkarteen eta klubuen urteko programen gastuak finantzatzea, beren jarduera bideragarria eta orekatua izan dadin.

2. NORI ZUZENDUTA DAGOEN:

Kirol elkarte eta klubei, Basauriko Udalaren Elkarteen Erregistroan izena emandako erakundeei, edota udalerriko biztanleei zuzendutako jarduerak edo programak garatzen dituztenei. Hala xedatzen du Oinarri Orokorren 3.3 atalak.

BAZTER UTZITAKOAK:


Ikastetxeak, elkarteak eta kirol eremukoa ez den beste edozein jarduera.

3. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUERAK:

Izaera egonkorreko eta/edo urteko lehiaketako jardueretan parte hartzea.

BAZTER UTZITAKOAK:

- Basauriko udal diru-laguntzen deialdiaren barruan, beste diru-laguntza lerro bateko jarduerak bultzatzen dituzten programak.
- Eskola Kiroleko programak.
- Beste administrazio publikoen diru-laguntza espezifikoetarako deialdien xede diren programak.



4. DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA:

Eskabidearekin batera, Udal-dirulaguntzak emateko Oinarri Arautzaileen 5.1 artikulua jasotako agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Jardueren proposamena (2017_Nombre Asociación_jarduerak_actividades.doc).
- Aurrekontua (2017_NombreAsociacion_aurrekontua_presupuesto.xls).
- Federatuen zerrenda, Federazioak konpultsatua.
- Elkartekide edo elkartean izena emanda daudenen, eta bertako Zuzendaritza Batzordeko kide direnen egiaztagiria, aniztasunaren tratamenduagatiko puntuak lortu nahi badira (6 C atala).
- Kirol monitoreen eta, kasua denean, entrenatzaileen titulazioa.

5. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA:

Hilabeteko epea egongo da eskabideak aurkezteko, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

6. BALORAZIO IRIZPIDEAK:

A. ERAKUNDEARI DAGOZKION IRIZPIDEAK: 150 PUNTU.

<i>Federatutako lizentziengatik / eskola-kiroleko fitxak edo txartelak.</i>	Gehienez, 45 puntu
- 0-20 lagun bitartean	15
- 21-50 lagun bitartean	30
- 50 lagunetik gora	45
<i>Bizkaiko txapelketan parte hartzeagatik</i>	5 (gehienez, 15)
<i>Euskadiko txapelketan parte hartzeagatik</i>	10 (gehienez, 30)
<i>Estatuko /nazioarteko txapelketan parte hartzeagatik</i>	15 (gehienez, 45)
<i>Kirol monitore tituluduneko</i>	0,5 (gehienez, 5)
<i>Entrenatzaile tituluduneko</i>	1 (gehienez, 10)

B. PROGRAMARI DAGOZKION IRIZPIDEAK: 90 PUNTU.

1.- Udalerrian duen eragina _____ 25 puntu

Udalerrian izandako parte-hartzaile kopurua	12 puntu
0	0 puntu
1-200	4 puntu
201-500	8 puntu
500 baino gehiago	12 puntu

**BASAURI**

Udala · Ayuntamiento

Bandera
Berdea

Jarduera edo programa zein norbanako eta talderi zuzenduta dagoen (ikusleak barne)	13 puntu
<u>0-50</u>	0 puntu
<u>51-150</u>	4 puntu
<u>151-500</u>	8 puntu
<u>500 baino gehiago</u>	13 puntu

2.- Proiektuaren kalitate teknikoa eta aurreko urtean, aurrekontua bat etorri izana aurkeztutako proiektuarekin. _____ **30 puntu**

Metodologia, ebaluatzeko moduak, adierazleak, giza baliabideak, baliabide materialak eta publizitatea balioetsiko dira. Horiekin batera, aintzat hartuko dira lortu beharreko xedeak eta programaren iraupena.

Eskabideek, atal honetan, 5 puntu lortu beharko dituzte, gutxienez.

Gehienez ere lor daitekeen puntuazioa, zuritu gabeko portzentajearen arabera (zeinaren ondorioz aurreko urteko diru-laguntza, zati batean ala osorik, itzuli behar izan den)	
% 95 baino gehiago zuritu gabe	5 puntu
% 60 baino gehiago eta % 95 baino gutxiago zuritu gabe	10 puntu
% 30 baino gehiago eta % 60 baino gutxiago zuritu gabe	17 puntu
% 8 baino gehiago eta % 30 baino gutxiago zuritu gabe	25 puntu


3.- Finantza-ahalegina _____ **25 puntu**

Gastu eta diru-sarrera totalen arteko proportziozkotasuna. Era berean, finantza ahalegintzat hartuko da aurrekontuan jasotako gastuaren eta eskatutako diru-laguntzaren arteko aldea. Proposatutako programa edo jarduera aurrera eramateko finantzaketa-iturri eta baliabideak bilatzeko egindako ahaleginak balioetsiko dira.

Kaudimena (lortutako baliabide ekonomikoak)	25 puntu
Aurrekontuaren % 1 eta % 20 artean	7 puntu
Aurrekontuaren % 21 eta % 40 artean	13 puntu
Aurrekontuaren % 41 eta % 60 artean	19 puntu
Aurrekontuaren % 60 baino gehiago	25 puntu

4.- Txapelketak, jardunaldi teknikoak, hitzaldiak eta ikastaroak antolatzea : _____ **10 puntu**

- Erakustaldi-txapelketak, puntu 2 txapelketako, 6 puntuko mugarekin.
- Jardunaldi teknikoak, hitzaldiak eta ikastaroak puntu 2 bakoitzeko, 4 puntuko mugarekin.



C. ANIZTASUNAREN TRATAERA: 40 PUNTU.

Emakume parte-hartzaile edo talde misto bakoitzeko	8 puntu
– Parekidetasuna edota emakumeak % 50etik gora	6 puntu
– Emakumeak egotea Zuzendaritza Batzordean	2 puntu
Desgaitasuna duen parte-hartzaile bakoitzeko, edota horiek ere parte hartzeko ekintza espezifiko bakoitzeko. Proiektuan jasota agertu behar dira.	4 puntu
Etorkinak gizarteratzeko ekintzak aurreikustea. Proiektuan jasota agertu behar dira. <i>Adibidez: Jardueren irudian edo zabalkunde-kanpainan kulturartekotasun irizpideak txertatzea...</i>	4 puntu
Parte-hartzaile beterano bakoitzeko	4 puntu
Hizkuntza-normalizazioan parte hartzea	20 puntu
Jardueretan euskara eta gaztelania pare-parean erabiltzea, edota euskarari lehentasuna ematea	10 puntu
Jardueretan euskara bakarrik erabiltzea	20 puntu

D. BESTE BATZUK: 15 PUNTU.

Udal jardueretan edota udalerriko beste elkarteek Udalarekin lankidetzan antolatutako horietan laguntzea.

Udal jardueretan laguntzea	15 puntu
Parte-hartze edo lankidetzak bakoitzeko (gehienez ere, 15 puntu)	3 puntu

Jarduerak proiektuan zerrendatuta agertu beharko dira, eta bakar-bakarrik balioetsiko dira diru-laguntza espezifikorik jaso ez duten parte-hartze edo lankidetzak proposamenak.

7. ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Udal diru-laguntzak emateko Ordenantzaren 8. artikuluan ezarritakoak; bereziki, diru-laguntza eman duen organoaren aurrean egiaztatzea jarduera egin dela, eta diru-laguntzak gozatzeko ezarritako helburua bete dela.

8. HIRUGARRENAK AZPIKONTRATATZEA:

Udal diru-laguntzak emateko Ordenantzaren 21. artikuluan ezarritako baldintzetan.